

6. Bezeroarekiko harremanak

Gure enpresak dedikatutako laguntza pertsonala eskainiko du, hau da, bezero bakoitzarekin elkartuko gara zein produktu salduko diogun ikusteko.

Gure helburua familiak laguntzea da, baina guztiek egoera ezberdina da. Benetan gure laguntza behar dutela bermatzeko eta gure produktuetako zeinek asetuko duen haien beharra hoberen ikusteko bilerak antolatuko ditugu bezeroekin.

Bestalde, telefono-bidezko komunikazioa ere egongo da, hau da, gure baldintzei edo produktuei buruzko galderaren bat izatekotan telefono-zerbitzu bat irekiko dugu horiek konpontzeko.

Guk oso ondo ulertzen ditugu gure bezeroen egoerak eta badakigu oso zaila dela bizitzea diru nahikorik lortzen ez bada, adibidez, argia ordaintzeko. Horregatik, ez diegu komeni ez zaizkien produktuak saldu nahi. Gainera, asko guk geuk ordainduko ditugunez beharrezkoa da enpresaren eta bezeroarekin harreman eta komunikazio hobezina lortzea. Gure helburua ez da bezero asko izatea, baizik eta dauzkagunen beharrak ondo asetzea, azken finean GANVI irabazi-asmorik gabeko enpresa da.